



Gipuzkoako Bazkondeak Txinara joateko Misio komertziala antolatu du

- Hamasei enpresek parte hartuko dute, horietatik 7 gipuzkoarrak.
- Misio komertziala ekainaren 3a eta 7a bitartean egingo da.

Donostia, 2013ko maiatzaren 31. Txinako misio komertziala **Gipuzkoako Bazkondeak** antolatzen du. Euskadiko Merkataritza Ganberen-Eusko Ganberaken jarduera bat da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lagundutakoa.

Txinako misioan parte hartzen duten enpresen gehiengoa ekipo ondasuneko, makina erremintako eta ingenieritzako sektorekoak dira. Sektore anitzak biltzen dituen misioa da eta 16 enpresek parte hartuko dute, 7 gipuzkoar, 6 bizkaitar eta 3 arabar.

Misio honen helburua Errusian dauden aukerak gure enpresei helaraztea da, merkatuan sartu ahal izateko bidea erraztuz eta sektorearen egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera emanaz.

Txina

Txinako gobernuak, 2011 eta 2015 urte bitartean, ekonomiak urtero %7 hazteko helburua ezarri du, nahiz eta nazioarteko erakundeen eta bankuen aurreikuspenek urteko hazkundera %7,8koa dela esaten duen. FMIren esanetan berriz, 2016an Txinak EEBBko BPGa gaindikuko du, erosteko ahalmenaren parekotasuanari dagokionez.



Epe luzean, Txinaren hazkundearen aurreikuspena, hazkundearen ereduaren aldaketari lotuta egongo da eta honek izango duen arrakastari. Bere ekonomia ber-orekatzeko modu bakarra kontsumoa BPGaren gaintetik haztea izango litzateke.

Datozen urtetan txinatarren kontsumitzeko eran aldaketa bat espero da eta honek produktu berrien inportazioari ateak irekiko dizkio.

Euskal Autonomi Erkidegoak, azken bi urtetan, Txinara egin dituen esportazioak, honako hauek izango lirateke:

PROBINTZIA	BALIO (milaka eurotan) 2012 urtea	BALIO (milaka eurotan) 2011 urtea
Araba	105.443,90	146.797,90
Gipuzkoa	245.406,10	248.416,00
Bizkaia	67.108,80	76.320,10
GUZTIRA	147.958,90	471.534,00

Euskal Autonomi Erkidegotik Txinara 2012an esportatu diren partida garrantzitsuenak, esportazioen %87a osatzen dutenak (mila eurotan), honako hauek dira:

KAPITULU	BALIO (milaka eurotan)	
ERREAKTORE NUKLEARRAK, GALDARAGINTZA, MAKINAK, APARATUAK Y TRAMANKULU MEKANIKOAK, MAKINA EDOTA APARATU HAUEN ZATIAK	247.176,70	52%
AUTOAK, TRAKTOREAK, BELOZIPEDOAK ETA LURREKO GAINONTZEKO IBILGAILUAK, ZATIAK ETA GEHIGARRIAK	98.439,00	21%
MAKINAK, APARATUAK ETA TRESNA ELEKTRIKOAK, ETA BERE ZATIAK; SOINUA GRABATZEKO ETA ENTZUTEKO APARATUAK, IRUDIAK GRABATZEKO ETA TELEBISTAN IKUSTEKO APARATUAK, ETA HAUEN ZATIAK ETA GEHIGARRIAK	35.863,00	8%
GALDAKETA, BURNIA ETA ALTZAIRUA	17.035,40	4%
GALDAKETA, BURNIA ETA ALTZAIRU MANUFAKTURA	15.118,00	3%
GUZTIRA	413.632,10	87,72%

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347